



## “Oinak bidean, bihotza adoretz”

Gauza bat da entzutea eta beste bat ikustea. Jakitea da bat, eta ezagutzea bestea. Konta diezaguketen ezerk ez du zerbait zuzenean bizitzearen esperientzia berdintzen. Banuen Afrikako euskal apaizen entzuerara. Banekien zerbait beren historia eta lanez. Banuen Manuel Uncitik idatzitako “Aventura en Katanga” liburuaren berri, nahiz eta irakurri gabe izan. Baina Kongoko Errepublika Demokratikorako bideari ekin eta, Kristo orrialde haien bidez hitz egiten hasi zitzaidanean, nire bihotza piztu eta adoretu egin zen, aurtengo Domund eguneko goiburuak dioenez. Hara iritsi eta gure anai eta arreba misiolariak hango pertsonekin batera bizi eta egiten dituztenak ezagutu eta bisitatu nituen. Eta pertsona horiek eman eta eskaini izan duten guztiaren zati bat ezagutzean, nire bihotza altxatu egin zen.

Kristo da misio-ibilbidearen jatorri eta zerumuga. Jaunari bere idazkiak azaltzen eta bere ogia zatitzen utzi diotenek, Hark bare ditzan, beren bihotz akituak irekitzen dizkiotenek, bere sentimenduekin bat egiteko urratsa eman dute. Eta era bateko eta besteko hainbeste sufrimenduk Jesusi eragiten dioten atsekabe bera sentitzen dute, baita beldur direnak askatzeko bere nahia ere, edo azpiratutako eta ahaztutako hainbeste jenderi eragindako iraina deuseztatzeko gogoak. Eta badira, beren bihotza aldatuta ikusteaz gainera, misioaren deia ere antzemandak, hauxe esaten dutenak: “esaidazu nora, eta hara joango naiz”. Eta bideari ekiten diote. Eta helmugara heltzean, Kristo aurpegi ezezagun eta elkartze berrietan agertzen zaie, eta ezagutzeko gauza dira, badakite-eta bidelagun dutena. Eta mundua sutan jartzera etorri zen Jesus honen sua zabaldu egiten da eta pertsonak eta lurra eraldatu egiten ditu. Eta Kristok, bidean, ikasle berriak eransten dizkio taldeari. Hauxe da misioaren esperientzia, Eliza bizidunaren ezinbesteko ezaugarri eta baita bere bizitasunaren termometro ere. “Zoazte mundu guztian zehar eta hots egin berri ona izaki guztiei” (Mk 16, 15) esan zigun Kristoren agindua zehazten duen misioa.

Kristo, sermoi eta katekesi eraginkorren bidez baino gehiago, maitasun eta zerbitzuzko eguneroko keinuen bidez iristen da: bisita gaixorik dagoen norbaiti, laguntasuna premian dagoenari, patxadaz entzun egoera larrietan... Eta,

jakina, aurreko guztia egiteko guztiz baliagarri den irribarre gozoan iristen da. Pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko xedez garatzen diren egitasmoen bitartez ere aurkezten da: laguntasuna ahalmen-urritasunen bat dutenei, osasun-zerbitzuak, eskolak eta lanbide heziketa, harrera familia babesik ez duten umezurtzei... Horrela iristen da Kristo ezagutu ez duten pertsonen bizitzara, batzuetan gelditzeko, besteetan bakarrik arrastoa uzteko. Eta horrela egiten du bidea misioak, gutxi-asko sakonak, gutxi-asko eraginkorrek diren arrastoak utziz, azken batean, Kristorengandik etorri gero, poz, eskuzabaltasun, erruki eta askapenez beteriko esperientziak uzten dituzten arrastoak. Bake eta salbamenezko bideak argitzen dituzten arrastoak dira, sarritan gerra-tankeek, 'Toyota armatuek' eta negozio dirudunak sustatzeko herrialdetik ateratzen diren mineralak garraiatzen dituzten kamioi erraldoiek utzitako lorratz gogorrekin gurutzatzen diren bidexka umilak argitzen dituzten arrastoak.

Utopiaren ideia jakin bat buruan, horren bila aurrera egin gura duenak bizkor gal dezake gogoia, aurrerapenik ikusi ezik. Baina misioan Jesusen atzetik jarraitzen dugunok ez gara hain erraz uzkuertzen, gure zerumuga suntsiezina baita: maitasun emankorra inoiz ez dela fruiturik gabe gelditzen dakitenen itxaropena da.

Kristo berpiztu da eta horregatik gizadia salbatuta dago. Baina oraindik ez da Bera gutako bakoitzarengan dena izango deneko egun hori. Eta osotasun horren zain gaudela, lagun asko eta asko oinazetan da historiaren zapalgailuaren biktima. Kristok leku guztietara iritsi gura du alferrikako zoritxarrak saihesteko, ahal den guztietan mina arintzeko eta beste inon jasoko ez dutenei itxaropena emateko. Eta Hari laguntzeko ezinbesteko dira gure misio-tradizioa jaso eta bizirik eutsiko dioten bihotz adoretzu eta sutsuak. Ez da nahitaezkoa ministerioa jasotzea Kristoren auzia hedatzeko. Nahikoa da Kristo ezagutzea eta Berarekiko bategitean bihotza piztu egin dela sentitzea. Izan gaitezen Haren bidelagun, bideak nora garamatzan arduratu gabe.

Esker-emate zoriontsua 2023ko Domund egunean.

✠ Joseba Segura Etxezarraga  
Bilboko gotzaina



## “Corazones ardientes, pies en camino”

No es lo mismo oír que ver. No es igual saber que conocer. Nada que puedan contarnos equipara la experiencia de vivir algo directamente. Había oído hablar de los curas vascos en África. Algo sabía de su historia y sus trabajos. Había escuchado que existía un libro, escrito por Manuel Unciti, titulado "Aventura en Katanga," un libro que no había leído. Pero me puse en camino a la RD Congo y, tal y como dice el lema del Domund de este año, empezó a encenderse mi corazón, cuando Cristo empezó a hablarme a través de sus páginas. Luego llegué y visité los lugares donde nuestras hermanas y hermanos misioneros compartieron y comparten vida y trabajos con las personas de allí. Y, al conocer algo de su historia de entrega, el corazón se me fue elevando poco a poco.

Cristo es el origen y el horizonte del camino misionero. Quienes han dejado que el Señor les explique las escrituras y parta su pan, quienes le abren sus corazones abatidos para que Él los serene, empiezan a acoplarse en su sentir. Y sienten el dolor de Jesús por tantas y tan variadas formas de sufrimiento, sienten su deseo de liberar a quienes tienen miedo, sienten sus ganas de acabar con el oprobio de tanta gente dominada y olvidada. Y algunos, no solo ven su corazón transformado, sino que perciben la llamada de la misión y dicen: "dime a dónde y allí voy." Y se ponen en marcha. Y cuando llegan a su destino, Cristo se les comienza a aparecer en rostros desconocidos y en encuentros nuevos, y son capaces de reconocerle porque saben que viaja con ellos. Y así, el fuego de este Jesús que vino a incendiar el mundo se extiende y va transformando personas y tierras. Y Cristo incluye en su camino a nuevos discípulos. Esta es la experiencia de la misión, ese rasgo necesario de una Iglesia viva, incluso termómetro de su vitalidad. La misión que concreta el mandato de Cristo que nos dejó dicho: "Id por todo el mundo y proclamad la Buena Nueva a toda la creación" (Mc 16,15).

Cristo no llega tanto mediante eficaces predicaciones o poderosas catequesis, sino a través de pequeños gestos cotidianos de afecto y de servicio: la visita a una persona enferma, el apoyo en un momento de necesidad, la escucha paciente en situaciones angustiosas... Y, desde luego, llega en la sonrisa amable

con la que se puede hacer todo lo anterior. También se presenta por medio de los proyectos que buscan mejorar las condiciones de vida de la gente: apoyo a las personas discapacitadas, servicios de salud, escuelas y formación profesional, acogida a huérfanos sin apoyo familiar... Así llega Cristo a la vida de personas que no le han conocido, a veces para quedarse, otras solo para dejar huella. Y así hace camino la misión, dejando señales más o menos profundas, más o menos eficaces, pero que, si son de Cristo, dejan experiencias de alegría, de generosidad, de misericordia, de liberación. Son rastros que inspiran caminos de paz y de salvación, sendas humildes que a menudo se cruzan con los surcos duros que dejan los tanques de guerra, los `Toyotas armados´ y los grandes camiones que transportan los minerales que salen del país para alimentar negocios poderosos.

Quien trabaja buscando avanzar hacia una idea muy concreta de utopía, corre el riesgo de desanimarse pronto si no ve progreso. Pero quienes seguimos a Jesús en la misión no nos desilusionamos con tanta facilidad, porque nuestro horizonte es indestructible: es la esperanza de quienes saben que el amor generoso nunca queda sin fruto.

Cristo ha Resucitado y por eso la humanidad está salvada. Pero todavía no llega ese día en el que Él sea todo en cada uno de nosotros. Y mientras aguardamos esa plenitud, muchas personas sufren víctimas de la apisonadora de la historia. Cristo quiere llegar a todas partes para evitar las tragedias innecesarias, aliviar el dolor donde se pueda y dar esperanza a quienes no la van a recibir de ningún otro lugar. Este es el Domund que surge del deseo del Señor de llegar a tiempo a donde se le necesita. Y para ayudarle hacen falta corazones con fuego que recojan y mantengan viva nuestra gran tradición misionera. No es necesario haber recibido un ministerio para extender la causa de Cristo. Vale con haberle conocido y haber sentido que en ese encuentro el corazón se enciende. Caminemos junto a Él sin preocuparnos a dónde puede llevarnos el camino.

Feliz acción de gracias en el Domund 2023.

✠ Joseba Segura Etxezarraga  
Obispo de Bilbao